

hondo-hondotik

Paloma Fernandez

(Doktorea Gizarte Antropologian)

Emakumeak maite ditugun emakumeak

Ekainaren 28an gay harrotasunaren eguna ospatzen da mendebaldeko munduan, eta ni kezkatzen nau pentsatzeak zenbaterainoko zerikusia dugun emakumeok honetan guztian. Nire iritzia azaltzeko bidea eman didatenez, esango dut emakumeok ez dugula inoiz ordezkari izan gay mugimenduan. Gutxiengo izan gara gutxiengoaren barruan. Gure ahotsa ez da beti argi eta garbi entzun, gure irudia ez da beti gardenki ikusi. Orain artekoak nolabaiteko salaketa kutsua du, baina ez dut inolako asmorik lesbianek aktibismoaren barruan duten militantziaren biktimizazioa egiteko. Ez dago politikoa ez den ezer pribaturik, eta, horrenbestez, honako honen bidez gogoeta egin nahi dut pertsonok gertaera historikoen garapenean dugun erantzukizunari buruz.

Emakumeak maite ditugun emakumeak arau heterosexualari buruz jarrera kritikoa duen aktibismoaren partaide izan gaitezke; hala ere, ez gaituzte benetan barne hartu gay askapeneko mugimenduaren eraikuntzan.

Horretarako arrazoiak ugari izan daitezke, baina hemen hiru aipatu nahi ditut: misoginia, terminologiaren arazoa eta ikusezintasuna.

Ahalik eta laburren ariko naiz misoginiak: aktibismoak eta teoria feministak, besteak beste, sistema androzentriko batean bizi garelako ideia ekarri dute. Mendebaldeko mundua gizonak gizonarentzat pentsatutako diskurso baten bidez azaltzen da. Misoginia edo emakumeekiko kultur gorrotoa sistema horren zati bat baino ez da, eta gay aktibismoa bera ere ez da horretatik kanpo gelditzen.

Terminologiari dagokionez, emakumeak maite dituzten emakume batzuek ez dute lesbiana izendapena hartu nahi. Ameriketako leku gehienetan, tradizio hispanokoak izan zein anglofonokoak, emakume askok nahiago dute gay direla esatea. Hori garrantzitsua da, inork nekez ager baitiezaioke bere atxikimendua errebindikazio mugimendubati, ez bada identifikatzen haren etiketarekin.

Gay terminoa 60ko urteetako aktibismoan sortu zen jarrera homosexuala errebindikatzeke. Etimologikoki, kolore anitzekoa, distiratsua, xarmagarria, alaia... den zerbait adierazten du. Oso zentzu positiboa du, harrotasunez betea. Lesbiana terminoak, berriz, askoz jatorri ilunagoa du. XIX. mendeko agintari mediko-psikiatrikoek perbertsiotzat jotzen zen gizarte-patologia mota bat izendatzeko sortu zuten lesbianismo hitza. Lesbiana izatea buru-gaixotasun bat ukaitea zen, edo gizarteari ezin egokiturik bizi den pertsona bat izatea. Alemaniako nazional sozialismoak gerrako presotzat hartzen zituen lesbiana zeritzen emakumeak, naturaren kontrako krimenak egitea leporatzen baitzieten, adibidez, haurrak abandonatzea edo ohitura onen aurkako bi-

zimodua izatea. Terminoen kutsu negatibo hori guztia gorabehera, Europako eliteetako emakume batzuek lesbiana izena hartu zuten. Garai zail haietan, mendea aldatzen ari zela, emakume batzuk sufragismoaren alde agertu ziren, eta aktibismo lesbiarraren aitzindariak izan ziren. Nolanahi ere, lesbiana hitza ez dagokio herri-tradizioari. Haste beretik, diskurso mediko-legal modernoko kultismo bat izan zen.

Gogoan izan dezagun kultur ingurune bakoitzak hitzak sortu dituela gauzak eta pertsonak izendatzeko. Guri dagokigunez, arreta jartzen badugu izendatzen gaituzten hitzetan, ikus dezakegu askotan lotura sinbolikoak direla, eta itxuraz zentzu handirik ez duten jarduerak zehatzekin erlazionatzen gaituztela. Esan nahi dut, esan, jakin-mina pizten didala argitzeak zer-nolako zerikusia duten *tortilla* eta *bollo* hitzek emakumeen arteko homoerotismoarekin.

Gaztelaniara jotzen badugu, penintsulatik kanpoko espainierara eta haren aldaera guztietara, emakumeak maite dituzten emakumeak izendatzeko hainbat bide erabiltzen dira. Begira dezagun hiztegia, eta, ziur aski, bakar bat agertuko da: "... lesbiana, emakume homosexualaz esan bedi".

Kultismoak gorabehera, eguneroko hizkuntzan *tortillera* da gehien erabiltzen den hitza, eta atzetik *arepera* eta *cachapera* datoz. Ameriketako inork ez daki zer den bollera hitza; hortaz, pentsatu nuen zerbait komun izan behar dutela *tortilla*, *arepa* eta *cachapa* hitzek.

Gogoan izan dezagun munduan espainieraz hitz egiten duten %80 baino gehiagorentzat *tortilla* opil mehe bat dela, arto-irinez egiten dena, eta oinarritzko dietan dutela ia Amerika guztietan. Ahantz ditzagun, beraz, arrautzak eta patatak. *Tortilla*, funtsean, Euskal Herriantalo deritzoguna da. Bestalde, eta oinarritzko elikagai gisa, peninsulako mediterranear kulturako gari-ogiaren parekoa da.

Arepa da Kolonbia, Txile eta Venezuelako hainbat lekutan *tortillari* ematen dioten izena. *Cachapa*, berriz, irinez gabe arto-ale samurrez egiten den *tortilla* bat da, eta, horregatik, pixka bat gozoagoa da, eta ez da hainbeste jaten bazkarietan, aparte baizik.

Tortillak, *arepak* eta *cachapak*, beraz, oso antzerak egiten dira. Irinez edo ale samurrez landuta ere, oretik puxka bat hartzen da eta bi eskuen artean jotzen, harik eta itxura biribila eta pixka bat lodia izan arte.

Kontua da Kariben *bollo*-a alua dela, emakumearen sexua, bere itxura lodi eta gozoa-

gatik. Beharbada lotura hori ez da hipotesi ona, Kuban bezala Venezuelan ere inork ez dakielako zer esan nahi duen *bollera* hitzak, baina, gutxienez, nahasmenduan sartzeko eta irin horietatik guztietatik irteteko balio izan dit.

Terminologiaren kontu hau amaitzeko, pentsa dezagun ogia emakumeen artean egin ohi dela, eta *tortillekin* ere gauza bera gertatu omen dela Latinoamerika osoan. Gogoan izan dezagun *tortilla* eguneroko gauza dela jende asko eta askoren mahaian, eta oso arrunta eta normala dela *tortillaren* jarduera. Harriagarria da ikustea zein

isilik agertu den gure jarduera hainbeste hitz eta gauzaren artean. Gay deitzeak adina harrotu beharko gintuzke guri *bollera* edo *tortillera* deitzeak.

Harro egon gaitezke, baina oraindik nahi-ko ikustezin gara. Pentsa dezagun zenbat emakume *bollera* ateratzen garen komunikabideetan, zenbat emakume errebindikatzen duten lesbianak direla arteetako, letrtako, ekonomiako eta politikako mundu intelektualean. Ikusgai ez izateak esan nahi du ez dugula ispilurik geure buruaren irudia ikusteko. Gutxienez, espazio birtual hori galtzea esan nahi du. Eta larria da, gu ez bagaude, gu ez den beste norbaitek azaltzea nolakoak garen, nondik gatozen eta nora

goazen. Guke ez beste norbaitek margotuko du gure erretratua, agian gureak ez diren kolore batzuk erabiliz.

Gay harrotasunaren egunaren ospakizunak gogora ekartzen du New Yorken, 1969ko ekainaren 28an, Stonewall tabernan gertatutako istiluen ondoren, poliziak

Villagen erabilitako errepresioaren aurka gay mugimenduak izandako aktibismoa. Egun hartan, ez zegoen emakumerik Christopher Street-eko taberna hartan. Emakumerik ere ez zegoen nazien triangulu arrosa zeramatenen artean. Ez zuen emakume batek proposatu orain gay, lesbiana, bisexual eta trans-en mugimendua bateratuaren buruan erabiltzen den sei koloreko bandera. Gay memoriak funtsezkoak balira bezala gogoratzen dituen gertaerek eta haien sinbologiak ez gaituzte ordezkatu. Hala ere, hor gaude; hala ere, bagara. Gure esku dago nola gogoratuko den gure memoria. Historia dugu, eta egiazki gurea eta guretzat izatea aukera dezakegu.

hirusta

Asisko Urmeneta

Gaubeihla

Behialakoak zion gisara: gaumancaco tireta habortan edequitza sombrero esque capotetara baino, horra éahartzearen marca. Eta horra, fini Noiafren, Dormidin, Valium eta Transilium. Zonbaitenaz, Monasterioko sukaldeetara jeitsi naiz lobelar bila, bertan ordeoa ohiko te, aza eta esperma urrina baizik ez. Damurik baratzeke irribelar guzia pipatu diagu dagoeneko! Aurtengo eta geurko. Liburutegi isilean etzen Xabier Mendiguren memorien alerik galditzen, lo ezina aski gaitz hedatua alokatutik bide ziren: izurritea, gaitza baino gehiago nonbait. Internetera jo dut ondok, baina eraitsi dudak Euzkitchenan klipak enboliaraino nerbiostu nau. Crónicas guipuzcoanas!!! Ez ote da manerarik gero loak har nazar behingoan ?!?

Elsiturik, sotoko izpiritegira —vulgo ostatu— jo dut, eta hantxe insomne bilgua hatxeman solasaldi bizian. Bere hartan ziren bertzeak bertze Musde Irrin, Zorroilh von Nabarrenkoxe, sir Kappo eta Minxalot de Barkos teknodantzan ari Kafrantzokiko stralette zenbaitzuekin.

Kasilda, Ajarabide, Angiolillo eta Berbereak sofapolisen. Pirata leihorreratu berriak: Pellot, Urreztieta, Zubigaraitxipi eta Legasse, Sex Pistolsen aireak goraki kantari, errum azkarra lagun zeukatela. Thibalt xanpain eta Katharina Arauxo gay partyan. Folin, Armand David eta Altonaga; kantabres bolondresak eskual xazurren kuntre aharrean. Alexandrina Izko, Mirande eta Mendiaga top less hutsean «jindate gure aldia» orroaka. Zalgize, makiak, Ines Intxausti eta Sara Lostau pianoan; Konan, Eugen, Beihl eta CBPO opio pipategiko kamañetan. Spiderman eta Pelman, Joxemiel Thermidor Isabelle Adjaniren eskutik; Ugutz, Kike, Cansorena eta Sabino Arana txisteka. Lugori eta Markiegi plasmatik xurgaka. Eta horrenbertze izaki non ene makrozefalian ere ezpaitira denak sartzen. Mito karga goraintzi eta jin bizz gure aldia harren. bizz gure aldia harren.

BAZTERKETA

Emakumeok ez dugu inoiz ordezkari izan gay mugimenduan. Gutxiengo izan gara gutxiengoaren barruan

LESBIANA TERMINOA

XIX. mendean lesbiana izatea buru-gaixotasun bat ukaitea zen, edo gizarteari ezin egokiturik bizi den pertsona izatea